

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2838

AGINDUA, 2025eko ekainaren 11koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak (indarrean dago Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen aurka ez doan guztian) 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritik, eta dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi-mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Ebaluazio Batzordeak 2025eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin. Era berean, II. eranskinean agertzen diren eskatzaileen eskaerak ukatzea, bertan jasotzen diren arrazoieta oinarrituta.

Bigarrena.— Deklarazioak agindu hau argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Agindu honen aurka, administrazio-bidea agortzen duenez, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.— Argitara bedi agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 11.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA.

I. ERANSKINA

GOI-MAILAKOTZAT JOTAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEEN ZERRENDAA

Abizenak, Izena	Espediente zk.	Modalitatea	Oharrak
Cabang Tolentino, John-Cristopher	027-GOI-MAI	Atletismoa	Kirolaria
Canal Deleito, Lucia	051-GOI-MAI	Arraunketa	Kirolaria
Cepas Zapico, Ander	020-GOI-MAI	Mahai-tenisa	Kirolaria
Diaz Rivas, Virginia	021-GOI-MAI	Arraunketa	Kirolaria
Echeverria Martinez, Maitane	034-GOI-MAI	Eskubaloia	Kirolaria
Erauskin Martinez, Anne	013-GOI-MAI	Eskubaloia	Kirolaria
Etxarri Sarasua, Joseba	044-GOI-MAI	Judoa	Kirolaria
Etxeberria Aranburu, Unax	058-GOI-MAI	Piraguismoa	Kirolaria
Fernandez Soto, Markel	052-GOI-MAI	Atletismoa	Kirolaria
Gaminde Sertutxa, Aimar	061-GOI-MAI	Herri-kirolak	Kirolaria
Garcia Bañuelos, Egoitz	022-GOI-MAI	Errugbia	Kirolaria
Goenaga Sarobe, Nahia	056-GOI-MAI	Arraunketa	Kirolaria
Mediavilla Lopez, Ivan	035-GOI-MAI	Taekwondo	Kirolaria
Otaegi Garmendia, Oihane	007-GOI-MAI	Neguko kirolak	Kirolaria
Reguillaga Eizaguirre, Joseba	045-GOI-MAI	Judoa	Kirolaria
Reguillaga Eizaguirre, Unai	048-GOI-MAI	Judoa	Kirolaria
Rodriguez Resa, Naiara	017-GOI-MAI	Kirol egokitua	Kirolaria
Salvador Asama, Unax	004-GOI-MAI	Errugbia	Kirolaria
Unanue Zabala, Mikel	006-GOI-MAI	Neguko kirolak	Kirolaria
Vega Uribarri, Ziara	014-GOI-MAI	Futbola	Kirolaria
Villagarcia Horn, Ane	066-GOI-MAI	Arraunketa	Kirolaria
Astigarraga Barrenetxea, Iratxe	050-GOI-MAI	Kirol egokitua	Teknikaria
Echeveste Ugarte, Juan Jose	046-GOI-MAI	Judoa	Teknikaria
Iparragirre Lekuona, Eneko	025-GOI-MAI	Txirrindularitza	Teknikaria
Martinez Martinez, Zuriñe	043-GOI-MAI	Kirol egokitua	Teknikaria
Morales Sarmiento, Marcos Cesar	032-GOI-MAI	Arraunketa	Teknikaria
Murua Olazabal, Jon	009-GOI-MAI	Kirol egokitua	Teknikaria
Oleaga Moreno, Iker	041-GOI-MAI	Txirrindularitza	Teknikaria
Picabea Arburu, Jon Mikel	023-GOI-MAI	Mahai-tenisa	Teknikaria
Villagra Viana, Iker	047-GOI-MAI	Gimnastika	Teknikaria
Goikoetxea Astaburuaga, Irati	029-GOI-MAI	Piraguismoa	Epailea
Otaegui Bichot, Igor Roger	039-GOI-MAI	Eskrima	Epailea
Perez de Mendiola Gonzalez de Durana, Asier	063-GOI-MAI	Futbola	Epailea
Zalacain Fullaondo, Mikel	016-GOI-MAI	Surfa	Epailea

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEEN ZERRENDAA

Abizenak, izena	Espediente zk.	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Bereau Sagarzazu, Mattin	062-GOI-MAI	Euskal pilota	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. GRABNI gazteen txapelketako emaitza aurkeztu du.
Blanco Arandia, Uxue	064-GOI-MAI	Eskubaloia	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Espainiako txapelketako emaitza aurkeztu du.
Cañete Abengochea, Ramon Angel	040-GOI-MAI	Triatloia	Desgaitasuna duten kirolariet laguntzeko kirolariak ez daude jasota Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan.
Dominguez Gonzalez, Iker	054-GOI-MAI	Surfa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Euskal Surf Gazte Zirkuituko emaitzak aurkeztu ditu.
Echaniz Rodriguez, Izaskun	011-GOI-MAI	Arraunketa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Munduko kopa bateko emaitzak aurkeztu ditu.
Fernandez Mendizabal, Nahia	005-GOI-MAI	Arrantza	Ez du 4.1d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Aurkeztu duen lehiaketa Ainguratutako Ontzien Munduko Arrantza Txapelketa da. Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako kirol-irizpide teknikoak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera: Munduko txapelketa baten emaitza, absolutuaren aurreko kategorian eta proba ez-olinpikoan (C multzoa), Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, txapelketa horrek baldintza hauek guztiak batera bete beharko ditu: a) Dagokion Europako edo nazioarteko federazioak antolatutakoa izatea. b) Programa olinpikoan sartuta ez dauden modalitateetako C taldeko lehiaketen kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkaturik egotea. Eskatzaileak aurkeztutako frogan 6 herrialdek parte hartu zuten.

Abizenak, izena	Espediente zk.	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Gaminde Sertutxa, Enara	060-GOI-MAI	Euskal pilota	Ez du 4.1d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Aurkeztu duen lehiaketa Europako pilota txapelketa da, CIJBk antolatua. Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako kirol-irizpide teknikoak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera: Europako txapelketa baten emaitza, absolutuaren aurreko kategorian eta proba ez-olinpikoan (C multzoa), Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, txapelketa horrek baldintza hauek guztiak batera bete beharko ditu: a) Dagokion Europako edo nazioarteko federazioak antolatutakoa izatea. b) Programa olinpikoan sartuta ez dauden modalitateetako B eta C taldeetako lehiaketan kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkatura egotea. Eskatzaileak aurkeztutako frogan 6 herrialdek parte hartu zuten.
Garcia I Pujolar, Aleix	049-GOI-MAI	Arraunketa	Ez du Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 DEKRETUaren 4.1.b) artikulua betetzen. Kirolariak igorritako informazioaren arabera, argi dago ez dela Bilbon bizi, nahiz eta errolda-ziurtagiria aurkeztu. Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 7. artikulua honela dio: «1. Euskal herritar izaera politikoa izango dute, estatutu honen ondorioetarako, Estatuko lege orokorren arabera Autonomia Erkidegoko lurralde barruko edozein udalerritan administrazio-herrikidetasuna dutenak. 2. Atzerrian bizi direnek, hala nola beren ondorengoei, hala eskatzen badute, Euskal Herriko biztanleen eskubide politiko berberak izango dituzte baldin eta Euskadin izan badute azken administrazio-herrikidetasuna, Espainiako herritartasunari eutsi badiote, betiere». Hau da, hauek dira euskal herritar politikoak: a. Administrazio-herrikidetasuna EAEko edozein udalerritan dutenak. b. Atzerrian bizi direnek, hala nola beren ondorengoei, hala eskatzen badute, baldin eta EAEn izan badute azken administrazio-herrikidetasuna, eta Espainiako herritartasunari eutsi badiote, beti ere. «Administrazio-herrikidetasuna» zera da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 15. artikulua arabera: Espainian bizi den pertsona orok ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan inskribatu behar du bere burua. Udalerrri batean baino gehiagotan bizi dena urtean denborarik gehien egiten duen udalerrrian bakarrik inskribatu beharko da. Uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 54. artikulua honako hau dio: «Espainian bizi den pertsona orok ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan inskribatu behar du bere burua. Udalerrri batean baino gehiagotan bizi dena urtean denborarik gehien egiten duen udalerrrian bakarrik inskribatu beharko da». Uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 55.2 artikulua arabera: «Udalerrri bakar bateko bizilaguna izan daiteke».
Gimeno Badiola, Xanet	031-GOI-MAI	Arraunketa	Ez ditu betetzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian eskatzen diren kirol-bikaintasuneko irizpideak: urte berean lehenengoa izatea, ACT ligan, Kontxako estropadan eta Espainiako Traineru Txapelketan. 2024ko ACT ligako 8. postua aurkeztu du.

Abizenak, izena	Espediente zk.	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Gozategi Urbietza, Haizea	036-GOI-MAI	Arraunketa	Ez du 4.1.c) artikulua betetzen. Euskal kirol-federazio batek emandako kirol-lizentzia baliatuta lehiatzea. Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Dekretu honen I. eranskinean eskatzen den kirol-merezimenduren bat egiaztatzea. Bosgarren postuan geratu da Europako U '19 arraun txapelketan. Eskatzen dena lehenengo lau postuen artean geratzea da.
Linacisoro Molina, Mikel Asier	026-GOI-MAI	Mendia	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Munduko kopa bateko emaitzak aurkeztu ditu.
Maeso González, Enara	057-GOI-MAI	Taekwondoa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Espainiako txapelketako emaitza aurkeztu du.
Odriozola Frisch, Hans	037-GOI-MAI	Surfa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Dekretu honetako I. eranskinean eskatzen den kirol-merezimenduren bat egiaztatzea. Aurkeztu dituen emaitzak Word surf league QS Europa ligakoak dira; liga hori hainbat jardunaldik (lehiaketek) osatzen dute, eta zenbatzen den emaitza liga horren azken sailkapena da. QS Europa zirkuituko azken sailkapenean 34. postua lortu zuen.
Olazabal Sanchez, Klara	053-GOI-MAI	Piraguismoa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Dekretu honetako I. eranskinean eskatzen den kirol-merezimenduren bat egiaztatzea. 2024ko Europako txapelketan banako frogan 23. postua lortu zuen, eta lehenengo hamasei postuen artean egotea eskatzen da. Taldekako frogan aldiz, 8. postua aurkeztu du, eta lehenengo lau postuen artean egotea eskatzen da.
Ostolaza Zabala, Usoa	015-GOI-MAI	Txirrindularitza	Ez du 4.1.b) artikulua betetzen. Euskal herritar-izaera politikoa izatea Autonomia Estatutuan xedatutakoaren arabera, interesdunak edo dagokion federazioak eskaera aurkezten duen eguna baino urtebete lehenagotik, gutxienez. - Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Dekretu honetako I. eranskinean eskatzen den kirol-merezimenduren bat egiaztatzea. Munduko Txapelketako lehen 32 postuetan egotea eskatzen da; 48. geratu da. Europako txapelketako lehen 16 postuetan egotea eskatzen da; Europako txapelketan, 34. geratu da.
Rodriguez Pla, Katrin	008-GOI-MAI	Hipika	Ez du 4.1.a) artikulua betetzen. 16 urte edo gehiago beteta izatea: alde horretatik, baloratzen diren kirol-merezimenduak lortu dituen momentuan kirolariak duen adina hartuko da aintzat. Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Aurkeztu duen lehiaketa «Liga Norte» da.
Segurola Salterain, Markel	030-GOI-MAI	Neguko kirolak	Ez du 4.2. artikulua betetzen. Ez du emaitzarik egiaztatu bere lehiaketako dibisio gorenean. Bere lehiaketa hainbat dibisiotan banatuta dago: Munduko Txapelketa, IA eta IB dibisioak, IIA Dibisioa eta IIB Dibisioa. Egiaztatutako emaitza IIB dibisiokoa da. Kategoria gorena baino txikiagoa da.

Abizenak, izena	Espediente zk.	Modalitatea	Ukatzeko arrazoa
Zabaleta Urresti, Unax	028-GOI-MAI	Arraunketa	Ez ditu betetzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian eskatzen diren kirol-bikaintasuneko irizpideak. urte berean lehenengoa izatea, ACT ligan, Kontxako estropadan eta Espainiako Traineru Txapelketan. 2024ko ACT Ligako 8. postua aurkeztu du.
Angulo Astondoa, Josu	010-GOI-MAI	Arraunketa	Ez du 6.1.d) artikulua betetzen. Titulu akademiko hauetakoren bat izatea egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien lizentzia, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra edo urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako Goi Mailako Kirol Teknikari titulazioa, edo horiek ordeztzen dituen edozein titulazio akademiko (1363/2007 Errege Dekretua, erregimen bereziko kirol-irakaskuntzen ordenamendu orokorra ezartzen duena). Aurkeztu duen titulazioa Arrauneko I. mailako teknikariarena da, eta ez urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan eskatzen den goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa (III. maila).
Barturen Fernandez, Mikel	038-GOI-MAI	Arraunketa	Ez du 6.1.d) artikulua betetzen. Titulu akademiko hauetakoren bat izatea egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien lizentzia, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra edo urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako Goi Mailako Kirol Teknikari titulazioa, edo horiek ordeztzen dituen edozein titulazio akademiko (1363/2007 Errege Dekretua, erregimen bereziko kirol-irakaskuntzen ordenamendu orokorra ezartzen duena). Aurkeztu duen titulazioa Arrauneko II. Mailako teknikariarena da, eta ez urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan eskatzen den goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa (III. maila).
Peña Cabezón, Iñaki	018-GOI-MAI	Arraunketa	Ez du 6.1.d) artikulua betetzen. Titulu akademiko hauetakoren bat izatea egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien lizentzia, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra edo urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako Goi Mailako Kirol Teknikari titulazioa, edo horiek ordeztzen dituen edozein titulazio akademiko (1363/2007 Errege Dekretua, erregimen bereziko kirol-irakaskuntzen ordenamendu orokorra ezartzen duena). Aurkeztu duen titulazioa Arrauneko I. mailako teknikariarena da, eta ez urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan eskatzen den goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa (III. maila).
Sanchez Hernandez, Ainhoa	055-GOI-MAI	Gimnastika	Ez du 6.1.e) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu, goi-mailako kirolari deklaraturako pertsona baten zinpeko adierazpenaren bidez, haren kirol-prestakuntzaren arduradun tekniko nagusia denik.
Sarachaga Garcia, Aritza	042-GOI-MAI	Surfa	Ez du 6.1.d) artikulua betetzen. Titulu akademiko hauetakoren bat izatea egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien lizentzia, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra edo urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako Goi Mailako Kirol Teknikari titulazioa, edo horiek ordeztzen dituen edozein titulazio akademiko (1363/2007 Errege Dekretua, erregimen bereziko kirol-irakaskuntzen ordenamendu orokorra ezartzen duena). Surfeko lehen mailako entrenatzaile-titulua aurkeztu du. Beharrezkoa da surfeko III. mailako entrenatzaile-titulua edo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentzia edo Kiroleko Goi Errendimenduko Masterra izatea.
Zabala Larrañaga, Unai	033-GOI-MAI	Surfa	Ez du 6.1.c) artikulua betetzen. Euskal kirol-federazio batek emandako kirol-lizentzia izatea. Ez du teknikari-lizentzia aurkeztu, kirolari-lizentzia baizik.
Castrillo Fernandez, Eugenio Jose	065-GOI-MAI	Taekwondoa	Ez du 7.1.d) artikulua betetzen. Eskatzailea nazioarteko epaile dela egiaztatzea, dagokion nazioarteko federazioak edo nazioarteko liga profesionalak egindako ziurtagiri bidez. Ez du aurkeztu eskatutako dokumentazioa.